

## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### JONATHAN POWELL

Bitartekaritzan eta gatazken konponketan aritzen den Inter/Mediate zentroaren sortzaile eta zuzendaria da Jonathan Powell. Tony Blair lehen ministro britainiarraren Kabineteko burua izan zen 1997 eta 2007 artean, eta denbora horretan Britainia Handiko Gobernuaren negoziatzaile nagusia izan zen Ipar Irlandan. Diplomazialari gisa, hainbat esparrutan lan egin zuen 1979tik 1996ra: besteak beste, Hong Kong 1980ko hamarkadaren hasieran Txinara itzultzeko negoziazioetan, Europako Lankidetzeta eta Segurtasunari buruzko Konferentzian giza eskubideei buruzko elkarrizketetan, 1980ko hamarkadaren erdialdean Stockholmeko Armagabetze Konferentziak Sobietar Batasunarekin zituen armen kontrolerako elkarrizketetan eta hamarkada haren amaieran Alemaniak izandako bateratzeari buruzko Bi Gehi Lauko Itunerako elkarrizketetan. Gobernua utzi zuenetik, "Great Hatred Little Room: Negotiating Peace in Northern Ireland" ("Goroto handia, tarte txikia: Ipar Irlandan bakea negoziatzea"), "The New Machiavelli: how to wield power in the modern world" ("Makiavelo berria: nola gauzatu boterea mundu modernoan") eta "Talking to terrorists" ("Terroristekin hitz egiten") idatzi ditu. Powellek, halaber, gobernuen eta talde matxinatuen arteko negoziazioetan parte hartu du, Europan eta Asian. ETArene eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketa-prozesuan sartuta ere egon zen 2006-2007 bitartean, eta baita ondoren ere. Aieteko Konferentzian parte hartu zuen, 2011ko urrian.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### BRIAN CURRIN

Concentric Alliance gatazka-konponketa erakundearen sortzaile eta zuzendaria da. Abokatu hegoafrikarra da, eskubide zibiletan, giza eskubideetan eta bitartekaritzan espezializatutakoa. Nelson Mandelaren enkarguz, 1994an Apartheidari buruzko ikerketa batzorde baten buru izan zen eta, ondoren, Egiaren Batzordearen sorreran parte hartu zuen. Bitartekari gisa jardun zuen Hegoafrikako eta Ipar Irlandako prozesuetan, baita trantsizio politikoko beste prozesu batzuetan ere, hala nola Sri Lankan, Ruandan, Ekialde Ertainean eta beste leku batzuetan. Hasieratik inplikatu zen prozesuan. Bruselako adierazpenaren eta Harremanetarako Nazioarteko Taldearen sustatzailea izan zen, eta Aieteko Konferentziaren antolaketan parte hartu zuen.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### TERESA WHITFIELD

New Yorkeko Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetzazko Zentroan irakasle-bisitari zenean idatzi zuen "Endgame for ETA: Elusive Peace in the Basque Country" ("ETAren amaiera: bake iheskorra Euskal Herrian") liburua. Bere beste argitalpenen artean daude "Paying the Price: Ignacio Ellacuría and the murdered Jesuits of El Salvador" ("Prezioaren ordaina: Ignacio Ellacuría eta El Salvadorren eraildako jesuitak") eta "Friends indeed? The United Nations, Groups of Friends and Resolution of Conflict. ("Lagunak zinez? Nazio Batuak, lagun taldeak eta gatazka-konponketak"). 1990eko hamarkadan, bost urte eman zituen NBERekin, eta, ondoren, New Yorkeko Gizarte Zientzien Ikerketa Kontseiluan Gatazka eta Bakea Prebenitzeko Foroko zuzendari izan zen, baita Genevako Elkarrizketa Humanitarioaren aldeko Zentroko aholkulari nagusi ere. Columbiako Unibertsitateko Nazioarteko Gaien eta Gai Publikoen Eskolan eman zituen eskolak, eta Norvegiako Atzerri Arazoetako Ministerioan aritu zen Kolonbiako prozesurako. 2016an Nazio Batuen Erakundera itzuli zen Nazioarteko Krisi taldetik, non presidentearen aholkulari nagusi izan baitzen. Gaur egun, Politika eta Bitartekaritza zuzendaria da Politika Gaietarako eta Bakearen Eraikuntzarako Sailean. Aieteko Nazioarteko Mintegian bere izenean parte hartzen du.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### SERGIO JARAMILLO

Bogotan jaioa, Sergio Jaramillo Caro Bakearen Europako Institutuko (EIP) goi-aholkuraria da, Kolonbian. Aurretik, Bakerako Goi Komisarioa (2012-2016) eta Kolonbiako orduko presidente Juan Manuel Santosen Segurtasun Nazionalako aholkularia (2010-2012) izan zen. Kargu hartan, FARC gerrillarekin isilpeko negoziazioen buru izan zen lehenik, 2012ko Akordio Nagusia sinatzean amaitu zirenak. Gero, 2016an Azken Akordioa izenpetzea ekarri zuten negoziazio publikoen buru izan zen Humberto de la Callerekin batera. Bake Mandatari gisa, 2017an FARCen armagabetzea gainbegiratu behar izan zuen. Ondoren, enbaxadore izendatu zuten EBean eta Belgikan (2017-2018). Aurreko urteetan, Sergio Jaramillo Nazioarteko Politika eta Gaietarako Defentsa ministrorde (2006-2009) eta Bogotako Bakerako ideiak Fundazioko zuzendari exekutibo izan zen (2004-2006). Horrez gain, Kanpo Harremanetarako eta Defentsarako ministroen aholkulari ere izan zen (2000-2003).



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### ANDY CARL

Eskarmentu handia du gatazken konponketan. 1994an, Conciliation Resources fundazioaren sortzaileetako bat izan zen, eta berak zuzendu zuen 2016ra arte. Gaur egun, hainbat ekimen garatzen ari da Somalian, Afrikako Aintzira Handien eskualdean eta Ipar Irlandan. Komunitateekin lan egiten du gertatutakoaren egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermea kudeatzeko moduaren inguruan. Euskal prozesuan esku hartu du Conciliation Resources fundazioarekin batera.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### VERONIQUE DUDOUET

Gatazken konponketan doktorea. Gai horri buruzko hainbat txosten eta liburu idatzi ditu. 2005etik, Berghof fundazioan lan egiten du. Bertan, hainbat ikerketa proiektu garatu ditu, nagusiki honako gai hauek jorratuz: erresistentzia/askapen mugimenduak; negoziazioa eta bitartekariaren esku-hartzea gatazka asimetrikoetan; eta gatazkaren ondorengo gobernantza eta borroka armatutik erresistentzia zibilera igarotzeko trantsizioa. Gizarte zibileko hainbat erakunderen eta nazioarteko hainbat agentziaren aholkularia da. Euskal prozesuan esku hartu du Berghof fundazioarekin batera.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne


EUS



### JONATHAN COHEN

Conciliation Resources erakundeko zuzendari exekutiboa. 1997an sartu zen Conciliation Resources erakundearen sartu, eta Kaukasoko programa garatu zuen, elkarrizketa eta konfiantza eragiteko ekimenak ardatz hartuta, Kaukason bakea sustatzeko. 2008ko irailean, Programaren zuzendari bihurtu zen, Conciliation Resources-en eskualdeko programak gainbegiratzuz Kaukason, Kolonbian, Mendebaldeko Afrikan, Erdialdeko eta Ekialdeko Afrikan, Afrikako Adarrean, Filipinetan, Fijin eta Kaxmirrekin lotuta Indian eta Pakistanen. Conciliation Resources erakundeak zeregin garrantzitsua izan du euskal prozesuan.





## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### JOHN CARLIN

Londresen jaioa. Egun Bartzelonan bizi da. Eskarmentu handiko kazetaria, La Vanguardian eta beste zenbait hedabidetan politikaz eta kirolaz idatzi ohi duena. Latinoamerikako berriemaile gisa aritu izan da hamaika gatazkatan, Latinoamerikan, Afrikan eta Asian. Zenbait liburu ere idatzi ditu, besteak beste, "El factor humano: Nelson Mandela y el partido que salvó a una nación", zinemara eraman zena "Invictus" titulupean.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### ALBERTO SPEKTOROWSKI

Alberto Spektorowski politologo uruguaiar-israeldarrak bake prozesu ugari ezagutu ditu, haietan aholkulari gisa parte hartu baitu, beste batzuen artean Camp David-ko Hitzarmenak. Jerusalemgo Unibertsitate Hebrearrean doktoratutakoa da. Tel Aviv-eko Zientzia Politikoen irakasle izan da. Hiritartasuna, immigrazioa eta gizarte-mugimenduak dira bere espezialitateak. Euskal Herriko Unibertsitatean sei hilabeteko egonaldi batean zegoela, Euskal Herriaren egoerarekin zuzeneko harremana izan zuen. 2011an, Brian Currin buru zuten Nazioarteko Harreman Taldean (NHT) sartu zen, eta euskal prozesua gertutik jarraitu du.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### CAROLINE GUIBET LAFAYE

Filosofian doktorea. Katedradun emeritua Frantziako Zientzia Ikerketarako Zentro Nazionalan. Europako (Alemania, Italia, Frantzia eta Espainia) eta Ekialde Hurbileko zenbait estatutako mugimendu politiko ez-alderdikoien motibazioak aztertzen ditu. Haren ikerketa arloak honako hauek dira: desberdintasun sozialak, erradikalizazio politikoa, indarkeriazko konpromisoa, gai etikoak eta dilema moralak. 2020an, Euskal Herriko militantzia klandestinoari eta indarkeriari buruzko hiru lan argitaratu zituen, baita emakumeen indarkeria politikoari buruzko liburu bat ere.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### KARMEN GALDEANO PRIETO

Egiari Zor fundazioko kidea. Presoen eskubideen defentsan aritu izan den abokatu ohia. Bere aita, Xabier Galdeano, GALEk hil zuen 1985ean, Donibane Lohizunen. Horrenbestez, erakunde parapolizialen indarkeriaren biktima da. Azken urteetan, ETaren biktimekin izandako topaketetan parte hartu du, eta elkarri entzutearen nahiz sufrimendu guztien aitortzaren aldeko defentsa egin du, justizia eta erakunde guztien aitortza aldarrikatzeaz gain.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### ROBERT MANRIQUE

Robert Manrique harakina zen Bartzelonako Hipercoren, eta bizirik irten zen ETak han eginiko atentatutik. Geroztik, ETaren biktimekin eta beste erakunde armatu batzuekin lan egiteari ekin dio. Erakunde Terroristen Biktimen Kataluniako Elkarteko (AVCOT) lehendakari izan zen. Egun, Terrorismoak Eragindako Arreta eta Balorazio Unitatearen (UAVAT) aholkularia da. 2012an, Hipercoreko atentatuagatik kondenatutako batekin bildu zen Langraizko espetxean. Indarkeria ezberdinetako biktimen arteko hainbat topaketatan parte hartu du, Foro Sozial Iraunkorrek antolatuta.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### AGUS HERNAN

Kazetaria eta komunikazio gaietarako buruzko aholkularia. Antxeta Irratiari lotua. 2016az geroztik, Foro Sozial Iraunkorraren koordinatzailea da. Foroaren lana garrantzitsua izan da eta izaten ari da, garrantzi handiko arloak lantzen baititu, hala nola proposamen inklusiboak egitea, armagabetze zibila erraztea, ETaren desagitea, biktimen eskubideak, presoaren egoeraren konponketa, eta bizikidetzaren demokratikorako eta memoriarako proposamenak. Bakea eraikitzeko prozesuaren fase guztietan urrats erabakigarriak egitea ahalbidetu duen euskal gizarte zibileko pertsonetako bat da.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### PAUL RIOS

Zuzenbidean lizentziatutakoa, Deustuko Unibertsitatean. Horrez gain, Universitat Oberta de Catalunya Giza Eskubideen Masterra atera zuen. Lokarri bakearen, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareko koordinatzaile eta bozeramailea izan zen 2006tik 2015era. 2011ko urrian, Aieteko Konferentzian, bideratzaile eta antolatzaile gisa parte hartu zuen. Alor hauetan esperientzia handia du, eta egun aholkulari independentea da eta Kolonbian kanpo-proiektuetarako aholkularia.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne


EUS



### AITZPEA LEIZAOLA

Antropologian eta Hizkuntzalaritzan lizentziaduna Paris X eta Sorbona unibertsitateetan. Antropologian doktoratu zen Nanterreko Unibertsitatean, muga politikoek Euskal Herriko nortasunean eta lurraldetasunean dituzten ondorioei buruzko tesi batekin. Ikasketak egin ditu Berlinen, Belfasten eta Renon (Nevada, AEB) ere. 2004an eta 2005ean, Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria izan zen. Gaur egun, Antropologia irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako campusean. Foro Sozial Iraunkorreko kidea da.





## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### JUAN JOSE IBARRETXE

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen 1999 eta 2009 artean, EAJtik. Lehenago, Laudio bere jaioterriko alkate izan zen, eta Arabako Batzar Nagusietako batzarkide eta presidente. 1984az geroztik, Eusko Legebiltzarreko kide ere izan zen. Lehendakari zela, bigarren agintaldian, Euskadiraiko estatutu politiko berri baterako proiektua aurkeztu zuen. Egun, Agirre Lehendakaria Center gizarte berrikuntzarako laborategiko presidentea da, giza-garapen iraunkorra helburu duena.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### QUIM TORRA

Kataluniako Generalitateko presidente ohia. Zuzenbidean lizentziaduna. 2007an, "A Contra Vent Editors" argitaletxea sortu zuen. Hainbat plataforma independentistatan parte hartu zuen eta Omnium Cultureleko presidentea izan zen denboraldi batez. 2017an parlamentari hautatu zuten, Junts per Catalunya ordezkatzuz. 2018ko maiatzean presidente izendatu zuten, JxCaten eta ERCren arteko koalizio gobernu baten buru, Carles Puigdemonten ondoren. 2020ko irailean kargua utzi behar izan zuen, Auzitegi Gorenak haren aurkako epai bat berretsi baitzuen, "desobedientzia" egotziz.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### AMALUR ÁLVAREZ ORTIZ

Gure Esku erabakitzeko eskubidearen aldeko plataformako kide da hasieratik, eta 2019az geroztik bozeramaileetako bat da, Josu Etxabururekin batera. Zientzia Juridiko eta Politikoen arloko doktore eta ikertzailea, bere tesia "Erabakitzeko eskubidea, XXI. mendeko eskubide baten genesisia" izan zen. Eusko Ikaskuntzaren hainbat proiektutan ere lan egin du, zehazki hauetan: "Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria", "Gazte lankidetzarako sareak", "Subiranotasun gatazkak Europan: konponbiderako oinarriak".



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### JORDI CUIXART

Ekintzailea, enpresaria eta 2015etik Omnium Cultural-eko presidente. 1996an hasi zen antolakunde horretan. 2017an Kataluniako independentismoaren aurka abiatutako prozesuagatik auzipetu eta bederatzirteko kartzela zigorra ezarri zioten. 2017ko urriaren 16an sartu zuten preso eta 2021eko ekainaren 23ra arte egon zen kartzelan, kausa berean zigortutako gainerakoekin batera indultatu zutenera arte. Berak ez zuela graziako neurririk eskatu berresten du, eta kausa kolektibo baten eta 3.000 errepresaliaturen aurrean amnistia beharrezkotzat jotzen du gatazkak irtenbide demokratikoa izan dezan.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### STEPHEN GETHINS

Eskoziako St. Andrews Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako Eskolako irakaslea. Lehenago, Erresuma Batuko Parlamentuko kidea eta Nazioarteko Gaietarako eta Europarako bozeramailea izan zen, SNP Eskoziako Alderdi Nazionala ordezkatzuz. Atzerri Gaietarako Batzordean parte hartu zuen SNPko lehen parlamentaria izan zen. Era berean, Alex Salmond eta Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministro nazionalisten aholkularia izan da. Liburu bat argitaratu berri du: *Nation to Nation: Scotland's Place in the World.*



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### BRANDON HAMBER

Hegoafrikan sortua. Egun, Belfasten bizi da. Irakaslea, John Hume eta Thomas P. O'Neill katedraren titularra Ulsterko Unibertsitateko (Ipar Irlanda) Nazioarteko Ikerketa Institutuko Bakeari buruz (INCORE). Hegoafrikako Witwatersrand Unibertsitateko Emigrazio eta Gizarterako Zentroan ere aritzen da. Ulsterko Unibertsitateko Justizia Trantsizionaleko Institutuko kidea da Brandon Hamber. Ikerketa-lan askoren egilea da, eta bake eta adiskidetze prozesu ugarian ere parte hartu du: Liberia, Mozambique, Bosnia, Sierra Leona, Euskal Herria... Era berean, Hegoafrikan ezarri zen Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeari buruzko, Hegoafrikako eta Ipar Irlandako trantsizio- eta adiskidetze-prozesuei buruzko eta indarkeria politikoak biztanleriarengan dituen ondorio psikologikoei buruzko idazki ugari idatzi ditu.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### CARLOS MARTIN BERISTAIN

Psikologian espezializatutako medikua, 1989tik giza eskubideen urraketen biktimekin lan egin izan du. Herrialde askotako memoria kolektiboko proiektuetan parte hartu zuen, "Guatemala Nunca Más" dokumentuaren koordinatzailea izan zen, eta Paraguai, Peru eta Ekuadorko egiaren batzordetan aholkulari ere izan zen. Berari zor zaizkio Mendebaldeko Saharako desagertzei eta hobi komunei buruzko ikerketak. Irlandan garatutako Glen Cree proiektuan parte hartu zuen. Horrez gain, giza eskubideen aldeko Batzorde Interamerikarreko Adu Independenteen Diziplinarreko Taldeko kide izan zen, Aytzopinapako (Mexiko) ikastetxeko 43 ikasle desagertuen kasuan. Kolonbiako Egiaren Batzordeko arduradun izan zen, eta Eusko Jaurlaritzak ematen duen René Cassin saria eman zioten 2020an. Lan askoren egilea, azkena, 2021ean argitaratutakoa, "Kolonbiako maleta bat" da, eta Bogotako Egiaren Batzordearen laguntzarekin egin zen.



## A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar  
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



### JEAN-PIERRE MASSIAS

Euskal Herrian bizi da. Zuzenbide Publikoko irakaslea Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean. Justizia eta Demokraziaren aldeko Institutu Frankofonoko presidentea da. Aditua da trantsizio demokratikoko eta justizia trantsizionaleko prozesuetan, eta aditu gisa parte hartu du Europako Kontseiluko Zuzenbidearen aldeko Demokraziarako Veneziako Batzordean. 2002an eta 2005ean Oxfordeko Unibertsitatean bi egonaldi egin ondoren, Saint Anthony's Fakultateko goi mailako kide gisa, bere ikerketak euskal gatazkaren konponbidez, gutxiengoaren hizkuntza eta kultura eskubidez eta justizia trantsizionalaz izan dira. Ekialdeko Europan ez ezik, hainbat misiotan ere parte hartu du, batez ere Burundin, Afrika Erdiko Errepublikan, Kurdistanen eta Palestinako lurraldeetan.